

**Espedientearen kodea:** 2026ZZ020001

**Espedientearen gaia:** Oiartzungo kirol-elkarteen funtzionamendurako 2026ko dirulaguntza-deialdia

**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026/06/23an, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

### “OIARTZUNGO KIROL-ELKARTEEN FUNTZIONAMENDURAKO 2026KO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA

Lehenengoa.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 26ko bilkuran Oiartzungo kirol-elkarteen funtzionamendurako 2026ko dirulaguntza-deialdiaren adjudikazioa onartu zuen, eta espresuki honako erabakia hartu zuen:

*Eskabideak aztertu eta oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera baloratu ondoren, honako puntuaketa eta diru-kopuruak adjudikatzea proposatzen da 2026rako:*

ELKARTEA	PUNTUAKETA	DIRULAGUNTZA
OIARTZUN KIROL ELKARTEA	1617	33.828,45 €
OIARPE KIROL ELKARTEA	355	7.426,78 €
HAURTZARO KIROL ELKARTEA (Atletismoa)	326	6.820,08 €
TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	374	7.824,27 €
HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA	196	4.100,42 €

Bigarrena.- Espedientea berrikustean egiaztatu da Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakian ez direla jaso dirulaguntzaren ordainketari buruzko zenbait datu, nahiz eta espedienteko gainerako dokumentazioan eta dirulaguntza-lerroaren oinarri arau espezifikoetan behar bezala jasota egon.

Zehazki, erabakian ez da adierazi dirulaguntza zein aurrekontu-partidaren kargura ordainduko den, ezta ordainketa egiteko modua ere.

Horrenbestez, bidezkoa da erabakia osatzea eta zuzentzea,

### OINARRI JURIDIKOA

Kasu honetan, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakian akats material bat antzeman da; izan ere, ez dira jaso dirulaguntzaren ordainketari buruzko zenbait datu, nahiz eta datu horiek espedientean jasotako dokumentazioan eta dirulaguntza-lerroaren oinarri arau espezifikoetan behar bezala zehaztuta egon.

Zehazki, erabakian ez da adierazi dirulaguntza zein aurrekontu-partidaren kargura ordainduko den, ezta ordainketa egiteko modua ere. Hala ere, datu horiek ez jasotzeak ez du erabakiaren funtsa, xedea edo edukia aldatzen.

Izan ere, espedienteko dokumentazioak eta dirulaguntza-lerroaren oinarri-arau espezifikoek argi eta garbi jasotzen dituzte bai aurrekontu-partida, bai ordainketa-baldintzak. Hortaz, antzemandako akatsa ez da erabakiaren edukiazko aldaketa bat, baizik eta erabakian jaso beharreko datu batzuk ez txertatzearen ondoriozko omisio materiala.

Horrenbestez, erabakian jaso gabeko datuak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan aurreikusitako akats material edo egitezkoen kategoriaren barruan sartzen denez, bidezkoa da hura zuzentzea eta erabakia osatzea, gainerako edukia bere horretan mantenduta.

Herritarrak Informazio Batzordeak gai honi buruz egindako proposamena ikusirik eta beronekin adostasunean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa

### ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiari honako xedapen atalak gehitzea:

*Bigarrema.- Dirulaguntza diru-partida honetatik ordainduko da: 1 0352.481.341.00.02 2026 (5875)*

*Ordainketa dirulaguntza-lerro honen oinarri-arau espezifikoaren 9. artikuluan jasota dagoen moduan egingo da: % 60, dirulaguntza eman dela jakinaraztean; % 40, denboraldia bukatu eta gastuen justifikazioa eta jardueren memoria aurkeztean. Beheko taulan zehazten den moduan:*

<b>ELKARTEA</b>	<b>PUNTUAKETA</b>	<b>ADJUDIKATUTAKOA</b>	<b>1. ORDAINKETA</b>	<b>2. ORDAINKETA</b>
<b>OIARTZUN KIROL ELKARTEA</b>	<b>1617</b>	<b>33.828,45 €</b>	<b>20.297,07 €</b>	<b>13.531,38 €</b>
<b>OIARPE KIROL ELKARTEA</b>	<b>355</b>	<b>7.426,78 €</b>	<b>4.456,07 €</b>	<b>2.970,71 €</b>
<b>HAURTZARO KIROL ELKARTEA (Atletismoa)</b>	<b>326</b>	<b>6.820,08 €</b>	<b>4.092,05 €</b>	<b>2.728,03 €</b>
<b>TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA</b>	<b>374</b>	<b>7.824,27 €</b>	<b>4.694,56 €</b>	<b>3.129,71 €</b>
<b>HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA</b>	<b>196</b>	<b>4.100,42 €</b>	<b>2.460,25 €</b>	<b>1.640,17 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2868</b>	<b>60.000,00 €</b>	<b>36.000,00 €</b>	<b>24.000,00 €</b>

Bigarrena.- Gainerakoan, 2026ko maiatzaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia bere horretan mantentzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta espedientean txertatzea.

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak  
Maria Victoria Joaristi Olariaga

O.E.  
Alkateak  
Joana Mendiboure



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026ZZ020001-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (OIARTZUNGO UDALA)